



## **EAE-KO ADMINISTRAZIOAK OHIKO ADABAKIAK EZARRI NAHI DITU NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAN, BERRIRO ERE**

### **Funtzio Publikoko Mahain Orokorraren azken bileran**

Abenduaren 4ean Gasteizen buruturiko Mahain Orokorraren bileran, administrazioak azken urteotako jarrera berdina erakutsi du. Gogoan hartu behar eremu honetan administrazioaren sektore ezberdinetako 65.000 langile inguru daudela ( Osakidetza, Justizia, Irakaskuntza, Administrazio Orokorra, Ertzaintza eta abar...).

Funtzio eta zerbitzu publikoaren benetako arazoei heldu beharrean, administrazioak alokairuen atala azaltzera mugatu da, ohiturari jarraikiz. Eskeintza horretan, iaz mahaian gauden sindikatuak bazterturiko planteamendua egin du administrazioak berriro ere 2006rako. Datorren urterako azaltzen duen eskeintza, gainera, Madrilen erabakitakoaren ildotik doa.

Bi urtetarako eskeintza ekonomikoa da, %0,5ekoa 2006rako eta %3,75 inguru 2007rako zuzeneko ordainketetan.

ELA Gizalaneko Idazkari Orokorra den Patxi Agirrezabalak adierazi zuenez eskeintza eskaxa izateaz gain, administrazioak betiko hankasartzeak azaleratzen ditu. **“ Sektore ezberdinetako arazoei heltzeko administrazioak behin eta berriro ukatzen da eta soldaten planteamedu soilarekin isilarazi nahi dute pertsonalgoaren ondoeza eta egonezina. Hainbat denbora daramagu langilegoaren prekarietatea eta egonkortasunaz jarduteko, euskalduntze plangintzak, pribatizazioekin amaitzeko, homologazioak eta abarreko neurriaz aritzeko baina ezezkoa jasotzen dugu”**.

Egoera hau ikusirik ez da harritzekoa Irakaskuntza edota Justizia bezalako gatazkak areagotzea eta lehertzeaz dauden gainontzeko sektoreak adi egotera. Funtzio Publikoa Sailaren itsutasuna eta ezkortasuna etengabea izan da azken urteotan eta bere jauntxokeriak gutxiengoa duen itun batetara eraman gaitzake beste behin.

**Gasteiz, 2006.eko Abenduaren 4ean**